

Literatur Kritika eta Teoriaren irakaskuntza unibertsitatean

(The teaching of critique and theory in the university)

Lasagabaster, Jesús María

Univ. de Deusto. Fac. de Humanidades. Mundaiz, 50.
20012 Donostia

BIBLID [1137-4454 (2002), 19; 15-26]

Sarrera gisako puntu labur batean, mugatzen dira literatura aztertzeari dagozkion hiru disziplina nagusiak: literatur teoria, kritika eta historia. Euskal literaturaren azterketari dagokionez, azpimarratzen da unibertsitateak, eta bertan, Euskal Filologiako fakultateek izan duten erabateko garrantzia eta eragina. Artikuluan esperientzia pertsonal bat erakusten da: abiapuntua, Parisen, 60-70 hamarkadetan modan zegoen kritika "berria" delakoa, eta geroago garatzen diren beste eredu kritikoak: harrera-estetika, dekonstrukzioa... Aipatzen da euskal azterketa literarioen zenbait ezaugarri berezi: linguistikoa, euskararen batasunari dagokiona, euskalkien funtzioa sortze literarioan... Bukaeran, kritika unibertsitarioa eta kritika publikoa edo "periodistikoa"ren arteko harremanak eta desberdintasuna erabakitzen dira.

Giltza-Hitzak: Literatur teoria. Literaturaren kritika. Literatur historia. Kritika berria. Kritika unibertsitarioa. Kritika publikoa.

En un breve punto a modo de introducción, se delimitan las principales disciplinas correspondientes al estudio de la literatura: teoría literaria, crítica e historia. En lo que atañe al análisis de la literatura vasca, se subraya la decisiva importancia e influencia que ha ejercido la universidad y, dentro de ella, las facultades de Filología Vasca. En el artículo se muestra una experiencia personal: el punto de partida, París, la llamada "nueva" crítica en las décadas de los 60 y los 70, y los modelos críticos que se han desarrollado después: estética de la recepción, deconstrucción... Se mencionan determinadas características de los análisis literarios vascos: lingüístico, el correspondiente a la unificación del euskara, función de los dialectos en la creación literaria... Finalmente, se examinan las relaciones y diferencias entre crítica universitaria y crítica pública o "periodística".

Palabras Clave: Teoría literaria. Crítica de la literatura. Historia literaria. Nueva crítica. Crítica universitaria. Crítica pública.

Les principales disciplines correspondant à l'étude de la littérature se trouvent délimitées dans une brève introduction: théorie littéraire, critique et histoire. En ce qui concerne l'analyse de la littérature basque, on souligne l'importance et l'influence décisive exercée par l'université et, parmi elles, les facultés de Philologie Basque. Dans l'article on montre une expérience personnelle: le point de départ, Paris, la dite "nouvelle" critique dans les années 60 et 70, et les modèles critiques qui se sont développés ensuite: esthétique de la réception, "déconstruction"... On mentionne des caractéristiques des analyses littéraires basques déterminées: linguistique, ce qui correspond à l'unification de l'euskara, fonction des dialectes dans la création littéraire... Finalement, on examine les rapports et les différences entre critique universitaire et critique publique ou "journalistique".

Mots Clés: théorie littéraire. Critique de la littérature. Histoire littéraire. Nouvelle critique. Critique universitaire. Critique publique.

SARRERA

Betidanik sorrarazi du aldez edo moldez sortze literarioak nolabaiteko berari buruzko diskurtso gogoetatsu bat, inplizitua izan bada ere.

Eta diskurtso hori hiru ikuspegi desberdinetatik egina izan da: lehenik, testu literarioaren beraren iruzkin, azterketa edo balorazioen bat, bere izaera literarioa, bere funtzionamendua edo bere esanahia erabakitzeke asmoz; bigarrenik, testua abiapuntutzat hartuz, abstrakzio prozesu baten bitartez, diskurtso teoriko bat antolatzen da, literaturari edo literatur mota bati, edo arazo literarioen bati oro har eta gaingiroki aplika dakioketena; azkenik, testu literario desberdinen arteko loturak eta harremanak kontuan izanik, haien diakronia finkatzen duten legeak edo prozesu historikoak erabakitzen dira.

Jakina denez, guk hemen bereizi ditugun hiru ikuspegi hauek ez dira azaltzen hain esplizituki, batez ere lehengo edo antzinako testuetan, baina nolabait ere, hiru elementu horiek azaltzen zaizkigu, kasuen arabera.

Denboraren eta literaturaren beraren poderioz, literaturari buruzko diskurtso gogoetatsuan ematen diren hiru ikuspegi horiek gero eta bereiziagoak egiten dira, bakoitzak bere objektu eta helburu zehatza finkatzen dituelarik, gaur egun ezagutzen ditugun hiru diziplina literario nagusiak osatuz: Literatura Kritika, Teoria eta Historia.

Zehaztu beharko balitz ere, esan daiteke hemeretzigarren mendeko bigarren erdian gertatzen dela bereizketa hau eta momentu historiko horretan sortzen direla benetan hiru diziplina horiek, bata bestearengandik bereizten den neurrian; jakina, hirurok dute aztergai berbera, alegia, literatura, baina argi eta garbi bereizten dira euren helburuen arabera.

Literatur kritikak testuen nolakotasun eta funtzionamendu formal eta semantikoa aztertzen dituen bitartean, teoriaren helburua literaturaren edo genero literario baten existentzia azaltzen duten lege unibertsalak finkatzea eta arrazoitzea izango litzateke. Azken batean, Jakobsonen eta errusiar formalisten ondoren, "literaturtasun" delako kontzeptuaren izaera eta bere indar operatzailea izango litzateke literatur teoriaren azterkizuna. Literaturaren historiari bagagozkio, testu literarioak euren hurrenkera kronologikoan aztertzen ditu eta, alde honetatik, hurrenkera diakronikoaz gain, diakronia horren norabidea erabakitzen duten legeak aurkitzen eta argitzen ahalegintzen da, dela hurbilpen formalista batetik, dela hurbilpen marxista batetik, hau da, historia orokorraren dialektika azaltzen duten legeen arabera.

Dena den, gaur egungo azterketa literarioen alorrean, argi eta garbi bereizten da zer dagokion literatur teoriari, zer historiari eta, azkenik, zer literatur kritikari.

Euskal literaturaren azterketa

Euskal literatura landu edo ikasiaren ezaugarriak nabarienetako bat –Mitxelena berak adierazi zuenez– bere berankortasuna da; berankortasun hau

azaltzen zaigu, halaber, normala denez, euskal literaturaren azterketa kritiko, teoriko nahiz historikoen alorrean.

Oraindaino dakigunez, euskal literaturari buruzko lehen azterketa kritiko eta nolabait teorikoa Arnaut Oihenarten "*L'art poétique basque*" litzateke; 1665. urtean idatzitakoa izan arren –Lapurdikoa apaiz bati zuzenduta omen dago–, hirurehun urte geroago azaldu zen inprimaturik, Lafittek prestatuta, aldizkari batean. Oihenarten liburuxka labur honek bazuen bere alde kritikoa eta baita asmo teorikoa ere, poesigintzaren alorrean nagusiki.

Autoreak gogor kritikatzeko eredu herrikoien arauetan finkatzen zen bere aurreko poesigintza, eta euskal poesian behar beharrezkotzat jotzen zuen eraberritze baterako eredu orokorrak eta arau metrikoak proposatzen zituen. Proposamen horiek beste literatur nagusietan oinarritzen ziren, hots, Espainia, Frantzia edo Italiako garai hartako poesigintzan, eta beharbada Erdi Aroko poesia latindarrean. Hor zeudekeen, Oihenarten ustez, euskal poesigintza berri baten ereduak, euskal poesiak inguruko edo Europako erritmo poetikoaren arabera funtzionatu nahi bazuen behintzat.

Hemen interesatzen zaiguna ez da, jakina, Oihenarten proposamenaren baliagarritasuna, guztiz ezaguna baitzaigu, bestalde, honen porrota euskal poesiaren bilakaera eta garapen historikoa. Interesatzen zaiguna, hamazazpigarren mendean euskal literaturari buruzko halako gogoeta teorikoa plazaratu izana da eta bere gogoetak inguruko literatura nagusietan oinarritu izana.

Euskal literatura diogu, eta ez euskal poesia, nahiz eta Oihenarten lana batez ere poesiari buruzkoa izan. Legezkoa litzateke suposatzea, Oihenartek, inplizituki bada ere, benetako testu literarioei dagozkien ezaugarriak ikusten zituela garaiko euskal poesian, ezaugarriok metrika-tratatueta aztertzen zirenetara mugatzen badira ere. Oihenarten ondoren, hamazortzi eta hemeretzigarren mendeetan, beste proposamen batzuk ere sortu ziren genero poetikoei buruzkoak.

Hemeretzigarren mendearen bukaeran ematen da nolabait aldaketa kualitatibo bat euskal literaturaren alorrean; sorkuntzari dagokionez, euskal prosa narratiboaren sorrera: kontaketa laburrak eta legendak, lehen nobela...

Honek denak badu bere eragina euskal literaturari buruzko diskurtso kritiko baten bilakaera eta garapenean. Orduan sortzen da, pixkana, literatur kritika bat, orduko modei jarraituz, oso inpresionista bada ere. Kritika lan hauek garaian sortu ziren aldizkari ugarietan argitaratu ziren. Askoz urriagoa da kritikaren oinarri orokorrak finkatuko lituzkeen benetako diskurtso teorikoa. Eta Orixe, Lauaxeta, Aitzol eta besteren eskutik sortzen denean, orduan ere, objektu nagusia genero poetikoa izango da.

Gehiegi sinplifikatu dugun ibilera labur honetan, badugu erabateko elementu bat, euskal azterketa literarioaren panoraman benetako iraultza suposatzen duena: orain urte gutxi sortutako Unibertsitatea, eta bertan, Filologia Fakultateak.

Gizarte literario batean, literatur teoriak eta kritikak unibertsitatean nola baiteko instituzionalizazioa lortzen dutenean, literaturaren beraren derrigorrezko instituzionalizazio berri bat gertatzen da; baina, zein zentzutan?

Erantzun egoki bat ematekotan, zenbait arazo argitu beharko genuke alde zurretik. Esate baterako, nola eraten dira azterketa teoriko eta kritiko horiek ikasketa desberdinetan?; noraino hartzen dira kontuan literaturak gizartean duen egoera kulturala eta funtzionamendu soziala?; zein eragin eduki dezake unibertsitatean egiten denak irakurle errealean ohitura eta harrera-moduetan?; zeintzuk dira, euskal bizitza literarioan – alegia, literaturarekin harremanen bat izan dezaketen era guztietako elementu kultural eta sozialetan – unibertsitate eta gizartearen artean bitartekotasun eraginkorra ezartzen duten edo luketen faktore nagusiak?

Ezinezkoa izango litzaidake galdera hauei hemen erantzunak ematen ahalgintzea. Nire hitzaldi honen helburua askoz ere apalagoa izango da, dogmatismorik gabekoa eta, egia esateko, nahiko jarrera eszeptiko batetik sortuko dena. Nik ezin dut, eta ez dut nahi bestalde, beste gauza berezirik egin. Nire esperientzia pertsonala adierazi nahiko nizueke eta esperientzia horretatik abiatuz, ondorio gisa, zenbait gogoeta ozenki azaldu. Harrokeria badirudi ere, hauxe izango da benetan nirea den bakarra. Besteena, dudarik gabe nirea baino askoz inportanteagoa dena, liburuetan duzue. Bibliografia kontu bat da eta, beraz, ez luke mereziko jardunaldi ponpoxo eta ongi prestatutako hauek antolatzea. Barkatuko naute Marijo eta Aurelia lagun maiteek, baina nire aldetik, erretiroaren atarian, ez naiz ausartzen eskola magistral bat ematera, nire esperientziaren testigantza soilki eskaintzera baizik.

“Kritika berria” Parisen

Hirurogeita zazpigarren urtean, Parisera joan nintzen, literatur kritikari buruzko ikasketa berezi batzuk egiteko asmoz. Nire helburu nagusia zen, garai hartan, literaturaren soziologia ikastea. Dudarik ez zegoen irakurri beharreko liburuen zerrendan: Lukácsen *Eleberraren teoria* eta Goldmannen *Eleberraren soziologia baterako* liburua zeudela. Horiek gogoan erabaki nuen Parisera joatea.

Nire heziketa literarioa, Madrileko Conplutensean, Menéndez Pidalen “Escuela Española de Filología” delakoaren ildotik egindakoa zen. Oso irakasle garrantzitsu eta famatuak izan nituen. Esate baterako, Dámaso Alonso edo Rafael Lapesa; baina aipatu ere ez zizkiguten egiten garai hartan Europan eta, konkretuki, Frantzia sortzen ari ziren korrante kritiko berriak. Hauexek izan ziren gero “kritika berria” delako mugimendua sortuko zutenak, eta hauexek, hain justu, ni Parisera joan nintzeneko garaian oso eztabaida gogor eta zorrotzak sorrarazi zituztenak. Gogora dezagun, adibidez, hirurogeita bosgarren urtean atera zela Raimond Picarden panfletoa Barthesen aurka, Roland Barthes baitzen kritika berriaren defendatzailek ezagunena. *Nouvelle critique ou nouvelle imposture?* zen Picarden testuaren izenburua. Hurrengo urtean argitaratu zuen Barthesek bere liburuxka: *Critique et vérité*, non Picarden eta kritika tradizioa-

laren jarrera “arkaikoa” kritikatzan zuen eta kritika berri baten onargarritasuna eta beharra defendatzen zuen. Urte berean, 66an, azaldu zen Jean Paul Weberren, kritika tematikoa delakoaren ordezkari zenaren *Néocritique et paléocritique, ou contre Picard* panfletoa. Horrekin adierazi nahi dizuet kritika berriaren eztabaida zorrotza pil-pilean zegoela momentu horretan, ez bakarrik unibertsitate giroan, edo aldizkari espezializatuetan, baita egunkarietan ere.

Ez nintzen Sorbonan, non Picardek bere kurtsoak ematen baitzituen, matrikulatu; “Ecole Pratique de Hautes Études” delakora joan nintzen, bertan irakasten baitzuten, ez bakarrik Goldmanek, baita Barthesek eta Greimasek ere, besteren artean. Hiru maisu hauen ikastaroak jarraitzeko aukera izan nuen; zoritxarrez – ala zorionez? – hirurogeita zortziko maiatzeko iraultza fama-tua lehertuz gero, bertan behera geratu ziren eskolak, baina, hala ere, pena merezi izan zuen. Hiru pertsona ospetsu hauek nahikoak izan ez balira bezala, Barthes eta Greimasek inguruan zebiltzan urte hartan ere Julia Kristeva, Todorov, Genette eta Claude Brémont, besteak beste. Ez ziren irakasle titularrak, baina noizean behin eskolaren bat ematen zuten.

Oso ongi gogoratzen naiz oraindik zeintzuk ziren ikasturte hartako gaiak: Goldmannena, “Lukács eta Heidegger” izenekoa zen. Goldmannen ustez, Heideggerrek, *Sein und Zeit* idatzi zuenean, 1923an, irakurria zuen Lukácsen *Historia eta klase kontzientzia*, 1919an argitaratua izan zena. Goldmannen ikastaro hura argitaratu zen, bere heriotzaren ondoren, 1973an, “Lukács eta Heidegger” izenburua daraman liburu batean.

Barthesek, bere aldetik, ikasturte hartan eta hurrengoan, Balzacen *Sarrazine* nobela laburraren iruzkin semiologiko bat egin zigan bere erara. 1970. urtean *S/Z* izenburuarekin azaldu zen iruzkin hori. Greimasi dagokionez, berriz, bere gaia “Narratibaren gramatikazko arazo batzuk” izenekoa izan zen, 1970. urtean bere *Du sens* liburuan sartu zuena. Besteei dagokienez, gogora dezagun Todorovek, adibidez, 1965. urtean argitaratu zuela *Théorie de la littérature. Textes de formalistes russes* liburu. Bera izan zen liburu horren bidez Frantzia formalismoa ezagutarazi zuena. Genettek 1966an *Figures* obraren lehen alea kaleratu zuen, eta Julia Kristevari dagokionez, *Semeiotiké* testu lodi eta sakon hori oraindik argitaratu gabe zegoen, 1969an azaldu baitzen.

Ikasturtearen bukaeran, Donostiara bueltatu nintzen eta urrian hasi nintzen Espainiar Literatura eta Hizkuntzalaritza irakasten E.U.T.G.en. Urte pare bat beranduago, gutxi gora behera, Filologia Erromanikoa espezialitatea hasi zenean –beranduago sortuko zen Euskal Filologia–, literatur teoria eta kritika emateko aukera eskaini zitzaidan eta beraz, Parisetik ekarritako “kargamentu” berri hori praktikan jartzekoa, “nouvelle critique” delakoaren korrante nagusiak izan baitziren nire egitarauaren oinarri: errusiar formalismoa eta estrukturalismoa, semiologia, soziokritika, psikokritika eta kritika tematikoa. Handik urte batzuetara, egitarau hau aberastu egin zen poliki-poliki beste korrante kritiko berrien ekarpenekin: Alemaniatic, Konstantzako Eskolatik hain zuzen, zetorren Harreraren Estetika; EEBBetatik, Dekonstrukzioa edo Kritika Feminista eta, jakina, For-

malismo eta Estrukturalismoaren hutsuneak zirela-eta, kritikaren esparruan gero eta indartsuago barneratzen ari ziren ikuspegi pragmatikoak.

Literatur teoria eta kritika euskal unibertsitatean

Beraz, unibertsitatean –Euskal Filologiako Fakultateetan, hain zuzen– finkatzen dira euskal literatur kritika akademikoaren oinarriak. Horretaz gain, badago, noski, unibertsitate kanpo egiten den kritika mota bat: aldizkari edo egunkarietan kaleratzen dena. Dena den, argi eta garbi bereizi eta azpimarratu behar dira bi kritika modu horien arteko mugak eta desberdintasunak, geroago aipatuko dudanez.

Unibertsitatean egiten den, edo hobe, irakasten den kritikaren ezaugarri nagusiak honakook izango lirateke nire ustez: zientifikotasuna, objektibotasuna eta koherentzia metodologikoa. Ezaugarri horien ondorioz, kritika unibertsitarioak ez du baloratzen, deskribatzen baizik.

Hiru ezaugarri horien oinarri nagusi eta komuna hauxe da: kritika unibertsitarioak Giza Zientzietara jotzen duela bere oinarri metodologikoak eta prozedura objektiboak bilatzeko. Jakina denez, Giza Zientzietan, honako hauetan bilatzen ditu kritikagintzak bere tresnak: Linguistika eta Semiotikan, Soziologia eta Psikoanalisian, Komunikazioaren Teoria eta Pragmatikan.

Beraz, honelako lan kritikoaren helburua ez da, ezin du izan, balorazio bat egitea, hau da, testu literario bat edozein ikuspegitatik ona ala txarra den erabakitzea, edo bere meritu estetiko edo ideologikoak zertan oinarritzen diren adieraztea,... edo irakurle potentzialen ikuspuntutik irakurtzea merezi duen ala ez esatea. Kritika unibertsitarioa irakasten eta lantzen duten, edo dugun guztiok honelako “paternalismo” kritikoaren aurka jarriko ginatke, dudarik ez baitago, irakurleriaren heldutasun eta libertatean sinesten dugula eta, bestalde, kritika unibertsitarioaren helburua zientifikoa dela eta ez didaktikoa.

Gure “jakituriatik” ikasleei irakatsi behar dieguna ez da zer irakurri behar duten, edo zeintzuk izango diren liburu baten irakurketatik atera daitezkeen emaitza estetikoak, moralak, ideologikoak, e.a. Literatur Kritika irakasten dugunon helburua testu baten barneko egituraren funtzionamendua azaltzea da, edo zeinuen arteko loturak eta harremanak argitzea, edo testuaren sakoneko egitura ager daitezkeen “mundu ikuskerak” edo “mito pertsonalak” argitzea, ... edo nik ez dakit zer arraio, irakurle arrunt eta normalak nabariko ez lituzkeenak.

Horrela, irakurle arrunt horrek “pertsonaiak” edo “leku” eta “denbora” ikusten dituenean, gure ikasle “sapiētísimo”ek “aktanteak” eta “kronotopopak” ikusiko dituzte. Ez naiz txantxetan ari. Baina egiatan esaten dizuet susmo oso larri batez lan egiten dudala azken urteotan, literatur teoria eta kritika irakasle naizen aldetik: zertarako balio dute, unibertsitate kanpo, erraztasun osoz maneiatzen ditugun baliabide kritiko eta agian kriptiko horiek guztiek? Inpresioa daukat maiz gure diskurtso teoriko eta kritikoak “zirkuitu itxian”, tele-

bistaren antzera, funtzionatzen duela unibertsitatean. Eta honetan legoke arriskurik tamalgarriena: diskurtso honen nolabaiteko autismoan. Baliagarri da irakasgaiak gainditzeko, edo lan itxurosoak, tesinak eta doktorego tesiak egiteko. Eta ni neu ere oso harro nago nire zuzendaritzapean egin diren tesi batzuez, aberastu egin baitute, dudarik gabe, euskal literaturari buruzko panorama kritikoa, nahiko urria dena, bestalde. Horretan daude, behin betiko, Txomin Agirre, Lizardi edo Atxagaren unibertso literarioak bere berean jartzen dituzten azterketa ederrak. Bai; eta gero, zer?

Neure buruari ia obsesiboki galdera hau egiten diot azkenaldian: gure ikasleek testu literarioak ikuspegi berezi batetik irakurtzen ikasten dute: narratologia, semiotika, soziokritikaren ikuspegitik, adibidez. Eta hau da, ez naiz ni hori zalantzan jarriko duena, Filologia Fakultate baten eginbeharra. Baina honek denak aberasten al du gure ikasleengan, Barthesen hitza erabiliz, “testuaren plazerra”? Ala, ez ote da izango alderantzizkoa: neketsu eta aspergarriak egiten direla testuekiko harremanak? Literatur teoria eta kritika egin eta gero, sakondu eta aberastu egiten al da literatur testuekiko grina?

Nik, literatur kritika irakasle naizen aldetik, askotan pentsatzen dut “haurgaltzaile” (corruptor de menores) edo horrelako zerbait naizela; zentzu metaforiko batean, jakina. Ikasleak, Fakultatera datozenean, irakurle “inuzenteak” dira, literaturaren aurrean, paradisu batean bezala bizi direnak. Eta kritika unibertsitarioa sagarra bezalako fruitu debekatu bat bezalakoa litzateke: jan eta berehalaxe zabalten zaizkie begiak. Den dena ezagutzen hasten dira testu literarioei buruz eta suzko ezpatarekin aingeru batek paradisu horretatik bota egiten ditu. Euren “inozentzia” literarioa galarazi egin diegu eta testu literarioekiko jarrera berria bereganatu dute: areagotu eta aberastu egin da euren jakituria literarioa, baina dudatan jar daiteke ez ote duten neurri berean galtzen testuekiko plazerra, nolabaiteko plazer erotiko hori, literatura gogoz eta atsegin ez irakurtzen denean sortzen den plazerra.

Hau, badakit, karikatura bat izan daiteke eta halaxe da, nolabait; baina funtsean, nire esperientzia da eta, alor honetan, hasieran adierazten nizuen jarrera eszeptiko horrek sortua, dudarik gabe. Nolanahi ere, ez dut esan nahi Filologia Fakultateetan irakasten den literatur teoria eta egiten diren azterketa kritikoa soberan daudenik, inola ere ez. Baina gauza asko dago, nire ustez, birpentsatu beharrekoa: unibertsitatean egiten diren azterketa literarioak testuinguru zabalago batekiko harreman estuan kokatu beharko lirateke, hau da, unibertsitatetik kanpoko bizitza literarioarekin jarri beharko genituzke harremanetan eta ikuspegi honetatik begiratuz gero, zenbait gogoeta egiten ausartuko nintzateke, nire hitzaldiaren momentu “serio” honetan.

Euskal azterketa literarioen zenbait ezaugarri

Ukaezina dugu filologo baten heziketan prestaketa literarioak duen ezinbesteko garrantzia; eta hori unibertsitateak baizik ezin du bermatu. Hiru alor

nagusitan sailkatuko nuke nik betebeharrak hori: linguistikoan, teorikoan eta metodologikoan, hain zuzen. Lehenengo, linguistikoaz mintzatuko gara, euskal literaturaren kasuan guztiz garrantzizkoa den alorraz. Dударik ez dago, literaturaren munduan mugitzen den edonork irakaskuntzan, kritikan eta abarretan ongi finkatuak izan behar dituela bere lanean erabili behar dituen tresna terminologikoak.

Denok dakigu ezin direla identifikatu literatura eta hizkuntza. Literatura hizkuntza da, baina hizkuntza eta “zerbait gehiago”. Eta “zerbait gehiago” hori zer den erabakitzean datza, hain zuzen, arazoa, nahiz eta formalistek, “literaturtasuna” kontzeptua zela-eta, arazo hori erabat konponduta eta guztiz erabakita utzi zutela pentsatu. Baina gaur egun oraindik bueltaka dabil literatur teoria, literatura zer den galderari erantzun desberdinak emanez.

Arazo horretaz aparte, nik uste dut badaudela arazo berezi batzuk, euskara literarioarekin zerikusi handia dutenak eta nik hemen, laburki bada ere, planteatu nahi nituzkeenak.

Alde batetik, euskararen batasunari dagokiona. Hor daude, jakina, Euskaltzaindiak proposatutako arauak. Baina hizkuntzak ez dituzte akademikoek finkatzen eta eratzen, hiztunek baizik. Eta idazlea hiztun kualifikatua da. Literatura “lurralde” berezia dugu, non euskara batuaren ez bakarrik izaera eta norabidea, baizik eta funtzionamendua, posibilitate eta mugak, aberastasun eta libertateak jokatzeko ari diren. Eta “lurralde” horretatik kritika edo teoria lanak egin nahi dituenak, ezin ditu arazo horiek guztiak baztertu. Alderantziz, euskal hizkuntzalaritzan ongi oinarritutako jakituria baten jabe izan beharko du.

Bestalde, batasunaren arazoarekiko lotura estuan dagoen beste elementu bat aipatu behar dugu; eta da, hain zuzen, euskalkiena. Askotan, arazo honi dagokionez, dualismo erradikal baten arabera funtzionatzen da: euskara batua ala euskalkiak. Baliteke aukera hori baliagarria izatea teoriarik; baina praktikan, gauzak ezin dira horrela planteatu; eta are gutxiago literaturaren kasuan. Hizkera literario edo poetikoak hizkuntzaren mugak leherrarazi egin behar ditu, arauak gaintu. Edozein momentutan, idazleak, poetak, idazle eta poeta onak, hain zuzen, hizkuntza asmatzen ari dira: asmatze horretan, ezin dira mugatu Euskaltzaindiak finkatzen dituen muga estuetara. Euskal kasuan, euskalkietan dago aberastasun bat, euskara batuaren erabilpenarekin kontraesan ez dagoena, eta euskara literario berri eta aberasgarri horren bila laguntza garrantzitsu bat suposa dezakeena. Beraz, honek ere eskatzen dio kritika unibertsitarioaren alorrean mugitu nahi duenari euskal filologiaren eta, behar bada, euskal dialektologiaren nolabaiteko ezagutza.

Puntu honetara iritsita, gustatuko litzaidake, edo ausartuko nintzateke filologia karreretan gehienetan gertatzen dena adierazten: hizkuntzalaritza eta literaturaren arteko bereizketa erradikalegia egiten dela gehienetan. Suposatzen da, inplizituki bada ere, hizkuntzalaritzaren ildotik bere ikasketak bereziak bideratu nahi dituenari ez zaiola arazo literariotan sakontzea interesatzen. Eta alderantzizkoa ere bai: literaturaren munduan murgildu nahi duenarentzat, ez

luketela interes handiegirik izango hizkuntzalaritzari edo filologiari dagozkion diziplina bereziak. Bereizkeria hau espezializazioaren emaitza da eta, behar bada, exigentzia bat. Espezializazioa egoki eta beharrezkoa baldin bada ere, neurri batean, unibertsitateak oreka sendo bat bilatzen saiatu behar du, ikasleen heziketaren onerako.

Goian aipatutako bigarren alorra teorikoa zen. Teoria gaur egun diziplina autonomoa bilakatu da, behar bada, zientzia, literatur zientzia, alegia. Fun-tsean, literatur teoria literaturaren gramatika da: gramatika orokorra, edo genero literario batena, adibidez, narratologia. Kontzeptu honen asmatzaileak, Todorovék, lehen momentutik narratzearen gramatika gisara definitu zuen narratologia.

Literatur teoriak duen autonomia zientifiko honek, berez ona eta onargarria bada ere, arriskuren bat suposa dezake, hots, bere inguruan mundu auto-nomoa sortzea. Azken batean, nolabaiteko “esentzialismoan” eror daiteke, aztertzen diren arazoak beren baitan justifikatuko balira bezala, testu literario-en praktikarekiko harremanetan jarri gabe. Filosofiaren munduan historian ze-har gertatu dena –esentzia eta existentziaren filosofia–, hori bera gerta liteke literatur teoriaren munduan: esentzialismoan erori eta literatura bera ahaztea. Eta literatura dagoelako existitzen da literaturaren teoria, eta honek literaturak berak dituen arazoak argitzen ahalegindu beharko luke. Literatur teoriaren alde praktiko hau –“existentzialista” hitza erabiltzeko baimena ematen bazait– da garrantzitsuena, euskal filologia ikasten ari diren ikasleentzat.

Azkenik, lehen aipatutako hirugarren arloa gogoratu nahiko genuke, hau da, metodologikoa, filologia fakultate batean sakonki landu behar den alorra. Eta “metodologikoa” esatean, literatur kritika unibertsitarioan metodoek du-ten garrantzia azpimarratu nahi dugu. Ez dugu defenditu nahi metodoaren ino-lako kultura; metodoak ere erlatibizatu egin behar ditugu, baina,aldi berean, erlatibizatze horretan, bi gauza argi eta garbi geratu behar dira, nire ustez, kri-tikaren irakaskuntzan.

Gaur egungo kritika unibertsitarioaren esparruan daukagun metodo anizta-sunak hauxe adierazten du: hizkera literarioa anitza dela semantikoki eta ho-rregatik, metodo desberdinen arabera azal daitekeela. Barthesek, kritika be-rria zela eta Picardekin izan zuen eztabaidan, argi eta garbi utzi nahi izan zuen kritikak baliagarritasuna bilatzen zuela, egia ez.

Adibideren bat ematekotan, Racineren kasua dugu aipagarriena, Racine izan baita akuri baten funtzioa bete duena kritikari berrien eskuetan. Barthe-sek, Goldmannek, Mauronek, hirurek eskaintzen dizkigute bere lan tragiko fa-matuari buruzko interpretazio pertsonalak, bakoitzak metodo desberdin baten arabera. Honetaz gain, Picardek ere badu bere Racine-a, kritika tradizionalaren arabera proposatutakoa. Hainbeste Racine-ren artean, nor izango ote da egiazkoa? Erraza dugu erantzuna: inor ez eta guztiak aldi berean, kontuan hartzen baldin bada hizkera poetikoaren pluraltasuna, aniztasun semantiko eta sinbolikoa.

Hala ere, honek ez du esan nahi, inondik ere, edozein testuri buruz edozein irakurketa kritiko proposa daitekeenik; eta hemen sortzen zaigu nik aipatu nahi nuen bigarren exijentzia edo ondorioa: alegia, koherentzia metodologikoarena, ikerketa kritikoaren barneko logika eta batasunari dagokiona erabiltzen den metodoaren arabera.

Argi dago ezinezko dela, Euskal Filologiako lizentziatura batean, metodo kritiko guztiak sakonki irakastea, kontuan izanik ia metodo guztietan kontzeptu operatzaileak giza zientzia batetik ateratakoak direla. Are zailagoa suertatzen da karreran zehar ukitzen ez diren zientzien kasuetan, adibidez, soziologia, psikoanalisi... Horiekin konparatuz, guztiz desberdina da hizkuntzalari-tzara edo semiotikara jotzen duten metodoen kasua. Baina posible eta beharrezkoa da edozein metodoren aplikazioaren baldintza orokor eta nagusiez, nik "mentalitate" kritiko moderno bat deituko nukeenaz, jabetzea. Hau da, nire ustez, unibertsitatean eman behar den heziketa literarioan kontuan hartu beharrekoa.

Kritika unibertsitaria eta egunkari-kritika edo publikoa

Hemen ikusten ari garenez, euskal literatur kritika zientifikoa unibertsitatean, Euskal Filologia Fakultateetan, sortzen da. Baina badago unibertsitateetik kanpo egiten den beste kritika arrunt bat, egunkarietan edo aldizkarietan zabaltzen dena gehienetan, nik "egunkari-kritika" deitu dudana eta Mari Jose Olaziregik, adibidez, kritika "publiko" deitzen duena. Eta benetan, kritika "publiko" esatea egokiago iruditzen zait, kontuan izanik kritika unibertsitaria edo akademikoa, tesiak, adibidez, argitaratzen badira ere, esparru unibertsitarioan eta akademikoan, adituen eskuetan, alegia, geratzen direla, maila "pribatu" batean, alde edo moldez.

Berehalaxe sortzen zaigun arazoa da zer-nolako lotura eta harremanak ematen diren bi kritika hauen artean.

Lehenik esan behar dena da bi kritika horiek oso urruti daudela bata bestearengandik eta oso zehaztuta daudela bien arteko mugak. Alor desberdinetan funtzionatzen dute, oso normala dena, eta esan beharra dago kritika akademikoa, Euskal Filologiako fakultateak direla medio, dezente aberastu dela azken urteotan. Baina ezin da gauza bera esan kritika publikoaz, alderantzizkoa baizik. Oso eskasa da euskal literatur kritika publikoa, eta ez digu gaur egun argitaratzen den euskal literaturaren islatze baliagarririk ematen.

Nolanahi ere, egon badaude kritika akademiko eta publikoaren artean zenbait antzekotasun edo elementu komun, nahiz eta, ziur aski, bion arteko elkarrreraginik ez egon. Antzekotasunen batzuk aipatzekotan, hauexek aipatuko nituzke nik. Lehenik, kritika publikoa, akademikoaren antzera, deskriptiboa bihurtu dela eta normalean deskribatzen dituen testuak ez dituela inola ere baloratzen. Beraz, deskriptibo izateaz gain, neutroa ere bada, alegia, ez dio irakurleari inongo aholku edo iradokizunik ematen testuari buruz. Egia da gaur

egun irakurlearen heldutasunean sinesten dela, alegia, “irakurlearen ordua” delako horretan murgilduta gaudela sinesten dela. Baina kritika publikoaren neutraitasun hori negatiboa ere izan daitekeelakoan nago.

Lehen esan dugu gaurko kritika publikoak ez duela islatzen euskal literaturaren panorama; urriegia delako gure bizitza literarioa, gure literaturgintza, oso aberatsa ez bada ere, bere osotasunean adierazteko. Beraz, nahiko zaila gertatuko litzaioke irakurle arrunt bati jakitea pena merezi duen ala ez duen nobela bat edo poema liburu bat irakurtzeak, eta zergatik. Gaur egungo kritika publikoa ez da ausartzen testuen balorazioan sartzen eta noski, ez naiz balorazio moral edo ideologikoaz ari. Uste dut kritika literarioa den neurrian, balorazio narratiboa edo poetikoa, hitz batez, estetikoa, beharrezkoa duela. Kritika gehienak irakurriz gero, oso zaila litzaioke irakurle normal bati, irakurri ditzakeen iruzkin kritikoen bitartez, testu onak eta txarrak bereiztea. Are gehiago, inpresioa daukat, kritikaren arabera, ez dela ezer txarrik argitaratzen euskaraz, ez nobelarik, ez poesiarik, eta hori gezurra da. Nahi baino testu txar gehiago argitaratzen baita euskaraz eta oraindik ere errazegia da euskaraz argitaratzea, kalitateari begiratzen dion inongo iragazkirik pasa gabe (eta erakundeen laguntza eskuratuz).

Kritikari dagokio, hain zuzen, panorama ilun horretara argi pixka bat eramatea. Berak jarri behar ditu tresnak irakurle arruntaren eskura testuetan barrena ziurtasunez mugi dadin.

Badakit baieztapen hauen azpitik kritika inpresionistaren oihartzunen bat antzemango duela norbaitek. Eta guk kritika unibertsitarioari egozten diogun meritu handienetarikoa da, hain zuzen, kritika inpresionista gairiditu izana, honen akats subjektibotasuna eta metodorik eza salatuz. Baina kritika inpresionistaren alorrean, edozein eredu kritikoren kasutan bezala, badaude kritika txarrak eta onak. Azken batean, kritika baten balioa ez dagokio bakarrik erabiltzen den metodo edo ikuspegjari, baita kritikariaren gaitasun eta trebetasunari ere. Azorinek, adibidez, kritika inpresionista egiten zuen, bere irakurle-inpresioak adierazten zituen; baina aparteko irakurlea zen, eta bere liburu kritikoak, *Los dos Luises y otros ensayos*, esaterako, oso onak dira ikuspuntu literario eta kritiko batetik

Ausartago izan beharko luke egunkarrietan edo aldizkarietan kritika literarioa egiten duenak. Ezin da neutrotasun hotz eta ia anonimo baten segurantzaz geratu eta atsedean hartu. Irakurleriari jakinarazi behar zaizkio testu baten ezaugarri narratiboak, poetikoak... edo semantikoak, baina, aldi berean, bere kalitate estetikoaz mintzatu behar da, ona ala txarra den adieraziz kritikariaren beraren irizpide pertsonalaren arabera. Subjektiboegia dela? Bai, baina kritikari baten subjektibotasuna fidagarria da edo izan beharko luke. Honetan dago kritika publikoaren arriskua, baita bere eginbeharra ere. Eta nik uste dut gaur egun, euskal kritika publikoak, gehienetan behintzat, ez duela eginbehar hori betetzen. Askotan, komunikabideetan egiten diren iruzkin kritikoak kritika unibertsitarioaren aztarnen atzetik egindakoak dira, beren tokia gure bizitza literarioan aurkitzen ahalegindu gabe. Eta hau, azken finean, aitzakia eta koar-

tada bat baizik ez litzateke. Objektibotasunean eta deskripzioan babesten dira, bere ezgaitasun edo bere epelkeria kritikoa ezkutatzeko.

Jakin badakit nik hemen azaldutako ideiak guztiz eztabaidagarriak, agian onartezinak direla; baina nireak dira eta nirea azaltzeko etorri nahiz ni hona, ez besterena. Bestalde, hasieran esan dizuedan bezala, nahiko eszeptiko bihurtu naiz, hainbeste urtetan zehar literatur teoria eta kritikaren laudorio eta gorazarrea egin ondoren. Nolanahi ere, aitorpen bat egingo dizuet, hitzaldi aspergarri honi bukaera emateko. Maiz komentatzen diot nire emazteari: gogo izugarria dut erretiroa hartzeko, orain egiten ari naizen gauza berbera eginez jarraituko dut, baina, jakina, nire gisara.